



*Bizkaiko Indarkeria
Matxistaren Behatokia
Observatorio de la **Violencia**
Machista en Bizkaia*

TXOSTENA

**EMAKUMEEN KONTRAKO INDARKERIA
MATXISTAKO EGOERETAN**

EMANDAKO LAGUNTZAREN ZIFRAK

BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOAN

POLIZIAREN ARLOA

2024



2. kapitulua

POLIZIA-ESPARRUA

Alderdi terminologikoak

Kapitulu honetan, Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Sailak biktimizazio-estatistikan emandako datuak aurkezten dira. Bertan kontuan hartzen dira *“pertsonak zigor-bidegabekeria baten biktima izan diren aldi guztiak, eta hala erregistratu direnak Ertzaintzan, dela herritarren salaketa baten bidez, dela nork bere ekimenez irekitako polizia-eginbide baten bidez”*.

Dokumentu osoan, **“biktimizazio”** terminoa aipatzen da, eta horren edukia “salaketa” terminoarena baino zabalagoa da; izan ere, Ertzaintzak zuzenean ezagutzen dituen gertakariak ere jasotzen dira, salaketarik egoteko beharrik gabe. Horrela, gizarte-arloko programei buruzko aurreko kapituluan ez bezala –bertan “emakume-kopuruari” buruzko informazioa eskaintzen da–, kapitulu honetan analisi-unitate nagusia indarkeriazko “kasuak edo gertaerak” dira; baina biktimizazioetan inplikaturako pertsona-kopuruari buruzko informazioa ere jasotzen da kasu batzuetan.

Sail honen kontzeptualizazioa eta terminologia dela eta –sail honek aurkezten ditu jarraian ematen diren datuak–, kapitulu honetan **“emakumeen aurkako indarkeriaz”** hitz egiten denean, hiru mota jasotzen dira, emakumeak indarkeria hori eragiten duen pertsonarekin duen harremanaren arabera:

- 1. Bikotekideak edo bikotekide ohiak eragindako indarkeria.**
- 2. Familia barruko (genero-)indarkeria:** gizonak familia-eremuan emakumeen aurka eragindako indarkeria (bikotekideak edo bikotekide ohiak eragindakoa izan ezik)¹.
- 3. Gizonak aurreko eremuetatik kanpo emakumeen aurka eragindako sexu-izaerako indarkeria.**

¹ 2010ean orduan Barne Saila zenak hobekuntzak egin zituen datuen ustiapenean, eta familia barruko indarkeriaren konputua egokitu zuen, pertsona erasotzailearen sexuaren arabera, bertan erasotzaileak gizonak diren kasuak bakarrik sartzeko (lehenago kasu guztiak sartzen ziren). Era berean, irizpide horri jarraikiz, 2009ko datuak zuzendu zituen; hori dela eta, txosten honetan urte horren inguruko datuak aipatzen direnean, desberdintasunak antzeman daitezke, 2009ko edizioan agertzen direnei dagokienez; bertan, Sailak emandako aurreko ustiapenaren ondoriozko zifrak jasotzen ziren.



2.1. EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA BIZKAIAN

2.1.1. Lurralde osoko datuak

2024an, Ertzaintzak, Bizkaian, emakumeen aurkako indarkeriagatiko (EAI) **3.612 biktimizazio** erregistratu zituen; zehazki, EAEn guztira erregistratutako biktimizazioen % 50,7.

Hau da, Bizkaian **60,3 biktimizazio izan dira hamar mila emakumeko**.

Gertakari horien emakume biktimen kopurua 2.842 da, eta biktimizazioen kopurua baino txikiagoa da; izan ere, biktima batek beharbada indarkeria-gertakari bat baino gehiago jasan du. Emakume biktimen tasa hamar mila emakumeko 47,4 biktimakoa da.

Urte horretan, bikotekideak/bikotekide ohiak eragindako indarkeriaren ondorioz hildako biktima bat erregistratu zen (Bilbo).


Aurreko urtearekin alderatuta, biktimizazioen bolumena % 3,1 handitu da (3.505 gertakari 2023an). Bilakaerari dagokionez, **2024ko datua** aldi osoan **erregistratutako altuena da, bai indarkeriaren guztizkoan, bai indarkeria-mota espezifiko bakoitzean**.

Grafiko honetan ikusten da adierazle honek, denboran zehar, **eten gutxiko goranzko ibilbidea** izan duela. Gorakada hori progresiboa da lehen urteetan (2003-2008) eta aurreko atalean azaldu denez, 2009an Sailak aldatu egin zituen neurketa-parametroak, eta, horren ondorioz, kopuruek behera egin zuten apur bat. 2010ean benetan gutxitu zen biktimizazio-kopurua, eta horrek eragina izan zuen kontuan hartutako hiru motetan (bikotekidea/bikotekide ohia; familia barrukoa; eta sexu-indarkeria). Orduz geroztik, beheranzko une gutxi daude, eta beherakada hori ez da nabari eguneko erregistroan; izan ere, adierazle horrek aintzat hartutako aldian biktimizazio-bolumena bikoiztu egin dela laburbiltzen du: 2003an egunean bost gertakari izatetik, 2024an **egunean hamar biktimizazio** izatera pasatu da.



Epealdia mugatzen duten bi urteetako (2003 eta 2024) bolumena alderatuta, azken urte horretan **1.942 biktimizazio kasu gehiago** gertatu dira.

Aintzat hartutako 22 urteetan, Ertzaintzak emakumeen aurkako indarkeriari dagozkion **59.863** gertakari erregistratu ditu Bizkaian.



2.1 taula. Emakumeen aurkako indarkeriaren ondoriozko emakumeen biktimizazioak. BLH. 2004-2024

	2003	2004	2005	2006	2007	2008	2009 ²	2010	2011	2012	2013	2014	2015	2016	2017	2018	2019	2020	2021	2022	2023	2024
Kop.	1.670	1.880	2.210	2.368	2.568	2.723	2.652	2.366	2.747	2.758	2.801	2.894	2.776	2.581	2.768	2.932	2.989	2.961	2.908	3.194	3.505	3.612
Urt. ald. %	--	12,6	17,6	7,1	8,4	6,0	-2,6	-10,8	16,1	0,4	1,6	3,3	-4,1	-7,0	7,2	5,9	1,9	-0,9	-1,8	9,8	9,7	3,1
03 ald. %	--	12,6	32,3	41,8	53,8	63,1	58,8	41,7	64,5	65,1	67,7	73,3	66,2	54,6	65,7	75,6	79,0	77,3	74,1	91,3	109,9	116,3


Kop.: Biktimizazioen kopurua / Urt. ald.: Aldakuntza urtetik urtera / 03 ald.: Aldakuntza 2003tik. Iturria: Segurtasun Sailaren datuetan oinarrituta egin da. Eusko Jaurlaritzak.

² 2010ean neurketa-parametroak aldatu ziren, eta horren ondorioz, 2009ko datuak ere aldatu ziren. Aldaketak "familia barruko indarkeria" kategoriari eragiten dio, eta erasotzaileak emakumeak izan diren kasuak ez ditu kontuan hartzen.

Indarkeria-motak

Segurtasun Sailaren sailkapenari jarraituz Emakumeen Aurkako Indarkeria (EAI) osatzen duten hiru motetatik bikotekidearen/ bikotekide ohiaren indarkeria da, ehunekotan, emakumeen aurkako indarkeria-gertaeren % 71,8; familia barruko indarkeria % 18,3 da; eta sexu-askatasunaren aurkako delituak aurtan % 9,9 dira Ertzaintzaren erregistroetan.


2.2 grafikoa. Emakumeen biktimizazioak, emakumeen aurkako indarkeria dela eta, indarkeria-motaren arabera. BLH. 2024



Iturria: Segurtasun Sailaren datuetan oinarrituta egin da. Eusko Jaurlaritza.

Aurreko urtearekin alderatuta, 2024an bikotekidearen/bikotekide ohiaren indarkeriak eragindako biktimizazioak antzeko mantendu dira, +% 1,1eko aldakuntzarekin. Familia barruko indarkeria-kasuak % 7,7 areagotu dira, eta sexu-askatasunaren aurkako delituak, % 9,9.

2.3 grafikoa. Emakumeen biktimizazioak, emakumeen aurkako indarkeria dela eta, indarkeria-motaren arabera. BLH. 2023-2024




Iturria: Segurtasun Sailaren datuetan oinarrituta egin da. Eusko Jaurlaritza.

Emakume biktimen kopuruari dagokionez, aldakuntza oso txikia da bikotekideak/bikotekide ohiak eragindako indarkerian (biktima bat gehiago); % 10,5koa da familia barruko indarkerian (53 emakume gehiago); eta % 9,4koa da sexu-indarkerian (30 emakume gehiago).

2.1.2. Udalerrietako datuak

Ohiko ereduari jarraituz, 2024an, biktimizazioak erregistratu ziren **Bizkaiko 113 udalerrietako 92tan**; udalerri horiek, oro har, lurraldeko emakumeen % 99 biltzen dituzte.

Udalerri horien erdiak baino zertxobait gehiago (% 55,4) biktimizazioen erregistro txikieneko tartean daude: urtean 10 gertakaritik behera izaten dituzte. Oro har, 1.000 biztanletik beherako herriguneak dira, eta Bizkaiko emakumeen % 7,7 horietan bizi dira, eta biktimizazioen % 5,3 biltzen dituzte.



Iturria: Segurtasun Sailaren datuetan oinarrituta egin da. Eusko Jaurlaritza

Kontrako muturrean, **19 udalerrik** dute (aurreko urtean baino bi gehiago) **gertakari-dentsitate handiena**. 40tik gora gertakariarekin, Bizkaian erregistratzen diren biktimizazio gehienak biltzen dituzte: **hamar biktimizaziotik zortzi** (% 82,2) multzo horretan gertatu ziren; eta udalerri horietan bizi dira lurraldeko emakumeen % 79.


Bizkaiko 11 udalerri handiak barne hartzen ditu (20.000 biztanletik gorakoak), baita Abanto y Ciérvana-Abanto Zierbena, Amorebieta-Etxano, Arrigorriaga, **Bermeo, Ermua, *Gernika-Lumo, *Muskiz eta Sopela ere.

*Udalerri horretan Ertzain-etxe bat dago.


**Udalerri horretan Ertzaintzaren Herritarren Arretarako Bulegoa dago.



2.1 irudia. Emakumeen aurkako indarkeriaren ondoriozko emakumeen biktimizazioak.
BLH. 2024



2.2 irudia. Emakumeen aurkako indarkeriaren ondoriozko biktimizazio-tasa
(10.000 emakumeko tasa). BLH. 2024



Iturria eta lanketa: Segurtasun Saila. Eusko Jaurlaritzak.



20.000 biztanletik gorako udalerriak

Hamar biktimizaziotik zazpi (% 70,1) Bizkaiko hamaika udalerri handietan pilatzen dira (20.000 biztanletik gorako udalerriak), adierazten duten biztanleriaren-tamainarekin bat etorritik (% 69,4).

Edonola ere, aurreko urteetan bezala, udalerri horietako bakoitzak errealitate jakin bat du, eta errealitate horiek agerian uzten dute maila horretan biktimizazioen kopurua ez dela biztanleen kopuruaren arabera soilik. Urtez urte ikusten da kasu guztietan ez direla proportzionalak udalerrietan erregistratutako biztanle-ehunekoak eta biktimizazio-ehunekoak.

Era berean, biktimizazio-kopurua eta emakumeen biztanleria-bolumena (10.000 emakumeko tasa) erlazionatzen dituen adierazleak haien arteko desberdintasun handiak erakusten ditu, eta ez da arraroa udalerri batzuetako indizea beste batzuetakoaren bikoitza edo altuagoa izatea.

Gogoan izan behar da datu horiek, zerbitzuen jardueratik datozela, Ertzaintzak ezagututako gertakariei dagozkiela, hau da, *arreta-sisteman ikusgai dauden kasuei*, eta, beraz, ezin direla nukleo bateko indarkeriaren intentsitate altuago edo baxuagoaren adierazletzat hartu.

**2.2 taula. EAlren ondoriozko emakumeen biktimizazioen adierazle nagusiak
20.000 biztanletik gorako udalerrietan. BLH. 2024**

Udalerria	Emakumeen biztanleria	BLHko guztizkoaren %	Biktimizazioen kop.	BLHko guztizkoaren %	Biktimizazio- tasa
Barakaldo	52.685	8,8	391	10,8	74,2
Basauri	20.826	3,5	142	3,9	68,2
Bilbo	182.866	30,5	1.014	28,1	55,5
Durango	15.297	2,6	75	2,1	49,0
Erandio	12.749	2,1	126	3,5	98,8
Galdakao	12.646	2,1	51	1,4	40,3
Getxo	40.357	6,7	178	4,9	44,1
Leioa	16.704	2,8	63	1,7	37,7
Portugalete	23.435	3,9	129	3,6	55,0
Santurtzi	24.019	4,0	206	5,7	85,8
Sestao	14.618	2,4	158	4,4	108,1
Guztira <20.000 bizt.	416.202	69,4	2.533	70,1	60,9
BLH, guztira	599.331	-	3.612	-	60,3

Oharra: Biktimizazioen tasa 10.000 emakumeren gainean kalkulatzen da.

Iturria: EINren eta Segurtasun Sailaren datuetan oinarrituta egin da. Eusko Jaurlaritza



Beste udalerri batzuk

Bizkaiko beste udalerri batzuek ere, 20.000 biztanletik beherako populazio-bolumenak dituztenek, batez besteko tasa³ ere gainditzen dute eta biktimizazio-bolumen esanguratsua dute:

- Abanto y Ciérvana-Abanto Zierbena (52 biktimizazio; 110,2ko tasa)
- Amorebieta-Etxano (79 biktimizazio; 78,8ko tasa)
- Arrigorriaga (46 biktimizazio; 75,4ko tasa)
- Bermeo (54 biktimizazio; 62,4ko tasa)
- Ermua (54 biktimizazio; 68,4ko tasa)
- Gernika-Lumo (55 biktimizazio; 62,3ko tasa)

³ Tasak emakumezko biztanleak eta gertatutako biktimizazio-kopurua lotzen ditu, 10.000 emakumetara zabaldua; beraz, nukleo txikietako adierazlearen balio altuak batez ere kalkuluaren beraren bidez azaltzen dira, eta ez hainbeste erregistratutako indarkeria-kasuen kopuruaren intentsitatearen bidez. Horregatik, ondorio hori minimizatzeke, zerrendan 40 gertakari edo gehiagoko biktimizazio-kopurua duten udalerriak soilik hartzen dira aintzat.

2.2. BIKOTEKIDEAK EDO BIKOTEKIDE OHIAK ERAGINDAKO INDARKERIA

2.2.1. Lurralde osoko datuak


A. Biktimizazioak eta biktimak

2024an zehar, bikotekideak edo bikotekide ohiak eragindako indarkeriagatiko emakumeen **2.595 biktimizazio** erregistratu ziren, eta horien **biktima 1.935 emakume** izan ziren.

Zifrak aurreko urtekoen oso antzekoak dira, eta +%1,1eko aldakuntza txikia izan dute (28 biktimizazio gehiago).

Indarkeria-mota hori emakumeen aurkako indarkerian erregistratutako gertakari guztien gehiengoa izanik, indarkeria-mota horren bilakaeraren grafikoak eta EAlren guztizkoari buruz aurreko atalean jasotako grafikoak oso antzeko profila dute.

2003tik aurrera, bikotekideak / bikotekide ohiak eragindako indarkeriaren ondoriozko emakumeen biktimizazioen kopuruaren bereizgarri dira urteko zifretan dauden **pixkanakako gorakadak**, batez ere Genero-indarkeriaren aurka oso-osoko babesa emateko neurriei buruzko Lege Organikoa (abenduaren 28ko 1/2004 Lege Organikoa) onetsi ondoren. Legea onetsi osteko urteetan, goranzko joera eten egiten da zenbait alditan, eta, **oro har, urtez urteko datuek maximo berriak adierazten dituzte**. 2024ko erregistroa da **aldiko zifrarik altuena**, eta 2003ko zifraren bikoitzera baino pixka bat gorago iritsi da (% 116ko igoera).



Iturria: Segurtasun Sailaren datuetan oinarrituta egin da. Eusko Jaurlaritza.



Aztertutako epealdian, **bikoiztu egin dira** indarkeria-mota horren **eguneroko erregistroan** jasotako datuak: 2003an hiru gertakari baino apur bat gehiago erregistratzen ziren egunean, eta azken bi urteetan, aldiz, **zazpi biktimizazio** egon dira **egunean**.

Aintzat hartutako 22 urteetan, bikotekideak edo bikotekide ohiak emakumeei eragindako biktimizazioak 43.941 izan dira Bizkaian.


10.000 emakumeko biktimizazio-tasa

Biktimizazioen bilakaera ikusteko beste modu bat 10.000 emakumeko tasa da.

2024an, bikotekideak edo bikotekide ohiak eragindako indarkeriaren ondoriozko biktimizazio-kopurutik eratorritako tasa **43,3 biktimizaziokoa da 10.000 emakumeko**. Aldiaren hasierarekin alderatuz gero, tasa ia 23 puntu igo da.

Adierazlearen bilakaeraren ikuspegitik, hazkundearen erritmoa ikusten da; azkarragoa da lehen urteetan.

2.6 grafikoa. Bikote/ bikote ohiak eragindako indarkeriaren ondoriozko biktimizazio tasa. BLH. 2003/2024



Oharra: 10.000 emakumeko tasa, biktimizazio-kopuruaren eta urteko emakumezko biztanleen arabera kalkulaturik.
Iturria: Eusko Jaurlaritzaren datuetan oinarrituta egin da. Segurtasun Saila.

Delitu-motak

Ertzaintzak egindako gertakarien kalifikazioen arabera, bikotekideek edo bikotekide ohiek eragindako biktimizazio gehienak delitu-mota hauen barruan daude, beste ekitaldietan gertatu den antzera:


- Tortura eta integritatearen aurkakoak: 1.125 biktimizazio (guztizkoaren % 43,4); gehienbat **familia-eremuko ohiko tratu txarren** kategorian (**1.108 biktimizazio**).
- Lesioak: 624 biktimizazio (guztizkoaren % 24).
- Justizia Administrazioaren aurka: 548 biktimizazio (guztizkoaren % 21,1). **Segurtasun-neurriak, kautela-neurriak, kondena** eta abar urratzea barne.

Jazarpen-delituak, Zigor Kodean

2015ean sartu zenak⁴ eta askatasunaren aurkako delituetan dagoenak, 33 biktimizazio jaso zituen 2024an.

Mota horretako gertakari **gehiago** hauteman dira jazarpena delitu-mota gisa sailkatu zenetik hasi eta hurrengo lau urteetan, eta ordutik aurrera behera egin du. 2022an gora egin zuen, eta hazten jarraitu zuen 2023an, eta orain arteko maximora iritsi zen.

2.7 grafikoa. Bikote/bikote ohiek eragindako indarkeria. Sexu-jazarpenen biktimizazioak. BLH. 2015-2024




Iturria: Eusko Jaurlaritzaren datuetan oinarrituta egin da. Segurtasun Saila.

⁴ Martxoaren 30eko 1/2015 Lege Organikoaren bidez Zigor Kodean sartua.

Lesioen larritasuna

2024an, bikotekidearen / bikotekide ohiaren indarkeriaren ondorioz hildako bat erregistratu zen Bizkaian.

2004az geroztik, 26 emakume hil dira Bizkaian bikotekideek edo bikotekide ohiak eragindako indarkeriagatik.



Iturria: Segurtasun Sailaren datuetan oinarrituta egin da. Eusko Jaurlaritza.

Eskura ditugun datuen arabera, biktimizazioen banaketak, lesioaren larritasunaren arabera, antzeko emaitzak ditu urtetik urtera. 2024an, zortzi kasutan erregistratu zen biktima **larriki zaurituta zegoela**.

2.3 taula. Bikotekidearen / bikotekide ohiaren indarkeriaren eraginezko emakumeen biktimizazioak lesioaren larritasunaren arabera. BLH. 2004/2024


LESIOAREN LARRITASUNA	2004 Kop. (%)	2008 Kop. (%)	2012 Kop. (%)	2016 Kop. (%)	2020 Kop. (%)	2024 Kop. (%)
Hilda	4 (0,3)	1 (0,1)	0 (-)	1 (0,1)	1 (0,05)	1 (0,04)
Larriki zauritua	4 (0,3)	12 (0,6)	9 (0,4)	6 (0,3)	12 (0,6)	8 (0,3)
Arinki zauritua	429 (33,0)	566 (29,0)	574 (27,2)	512 (26,2)	515 (24,1)	597 (23)
Kalterik gabe	769 (59,2)	1.261 (64,6)	1.383 (65,5)	1.308 (67,0)	1.279 (59,9)	1.515 (58,4)
<i>Ez dakigu</i>	<i>93 (7,2)</i>	<i>112 (5,7)</i>	<i>144 (6,8)</i>	<i>126 (6,5)</i>	<i>328 (15,4)</i>	<i>474 (18,3)</i>
GUZTIRA	1.299 (100,0)	1.952 (100,0)	2.110 (100,0)	1.953 (100,0)	2.135 (100,0)	2.595 (100,0)

Iturria: Eusko Jaurlaritzaren datuetan oinarrituta egin da. Segurtasun Saila.

Harremana erasotzailearekin

Erregistratutako kasuen erdietan baino zertxobait gehiagotan (%56), erasotzailea **ez da**, dagoeneko, biktimaren **egungo bikotekidea**.

Hala, aurreko urteetako joerari jarraitu zaio; izan ere, aldi horretan, ia urtero, banantze-testuinguruan gertatzen diren gertakarien ehunekoa %50etik gorakoa izan da (grafikoan kolore berdeko tarteekin irudikatu da).




Iturria: Eusko Jaurlaritzaren datuetan oinarrituta egin da. Segurtasun Saila.

Adina

Ohiko joeraren ildotik, 2024an ere adin-talde guztietako biktimak erregistratu dira, eta bi heren inguruk (**% 62,1**) ez dute **40 urte baino gehiago**:

- Adin horretako emakumeen kopurua 1.202 da.
- Aurreko urteetan bezala, **31 eta 40 urte bitarteko adin-tartea da kasu gehien dituen** (biktimen % 32). Aurreko eta hurrengo tarteei dagokienez, bakoitzak kasuen laurden bat inguru biltzen du (% 23, 21 eta 30 urte bitartekoek, eta % 26, 41 eta 50 urte bitartekoek).
- **44 adingabe** izan dira (2023an, berriz, 30): 14 a 17 urte bitarteko 40 nerabe, eta 14 urtetik beherako lau.




Aurreko urtearekin alderatuta, talde guztietan izan da gorakada, erdiko tartean (31-40 urte) eta adin handienekoan salbu.

Aurten, **31 eta 40 urte bitarteko adin-tartean** agertzen da **tasa gorena** (adinaren arabera tasa espezifiko), eta **100 kasu inguru dira 10.000 emakumeko**.

Tasa espezifiko adinaren arabera

Adin-tarte bakoitzeko biktima-kopuruaren eta adin horietako biztanle-bolumenaren arteko erlazioak agerian uzten du Ertzaintzak erregistratutako kasuak 18 urtetik aurrera handitzen hasten direla, eta 40 urtetik aurrera behera egiten dutela.



Oharra: 10.000 emakumeko tasa, biktima-kopuruaren eta adin horietako biztanleen arabera kalkulatuta. Iturria: Eusko Jaurlaritzaren datuetan oinarrituta egin da. Segurtasun Saila (poliziaren datuak) eta EIN (biztanleriari buruzko datuak).


Lehen ere aipatu dugun moduan, datuek ez dute islatzen indarkeria-mota hau jasaten duten emakumeen profil orokorra, baizik eta, *kontuan hartutako aldian, erakundeen laguntza jaso dutenena* (kasu honetan, Ertzaintzaren polizia-zerbitzuena), babes- eta laguntza-neurriak aktibatu direlako, bai biktimaren beraren ekimenez, bai besteren baten ekimenez. Edonola ere, zifrek **urtez urte agerian uzten dute adina desberdintasun-faktore bat dela zerbitzuak erabiltzeari begira.**

Jaioterria

Bikotekideak / bikotekide ohiak eragindako indarkeriaren biktimen % 54,2 EAEn eta beste autonomia-erkidego batzuetan jaiotako emakumeak ziren, guztira 1.049 emakume. % 45,8 atzerrian jaiotakoak ziren (886 emakume).

Aurreko urtearen aldean, lehen taldea pixka bat handitu da (% 4,5) eta bigarrena antzeko neurrian txikitu da (% 4,7).

Aldi horretan zehar, murrizten joan da bi taldeen proportzioen arteko distantzia.



(*) 2004ko datuak biktimizazioei dagozkie, urte horretako biktimen daturik ez dagoenez gero. 2014ko eta 2024ko datuak biktimei dagozkie.

Iturria: Eusko Jaurlaritzaren datuetan oinarrituta egin da. Segurtasun Saila.


Atzerriko jatorria duten emakumeen datuak xehatuta, ohikoa den bezala, gehienak Latinoamerikako herrialdeetatik datoz (% 76,1). Ondoren, Europako (% 10,8) eta Afrikako (% 10,7) herrialdeetako emakumeak daude; gainerakoak Asiakoak dira (% 1,1).

B. Erasotzaileak⁵

2024an, 1.918 erasotzailek eragin dute bikotekidearen edo bikotekide ohiaren aurkako indarkeria; datu hori aurreko urtekoa baino % **1,6 baxuagoa** da (1.950 erasotzaile 2023an).

Aurreko urteetan bezala, erdiko adin-tarteetan biltzen dira kasu gehienak: 31 eta 50 urte bitartean, horietako % 58,8 daude (31 eta 40 urte bitartean % 31,3; eta 41 eta 50 urte bitartean, % 27,5).

Biktimekin gertatzen den antzera, aurreko urtearekin alderatuta, erasotzaileetan ere adin-talde ia guztiek egin dute gora.



Iturria: Eusko Jaurlaritzaren datuetan oinarrituta egin da. Segurtasun Saila.

⁵ Emakumeen aurkako indarkeria-gertakarien egileak gizonak diren kasuak.

2.2.2. Udalerrietako datuak

Udal-mailan biktimizazio-datuak balioesteko orduan, txosten honen aurreko edizio eta ataletan adierazi bezala, kontuan hartu behar da datu horiek —zerbitzu publikoen erregistroetatik hartuak— ez dutela zerikusirik fenomenoak udalerrri ezberdinetan duen intentsitate handiagoarekin edo txikiagoarekin, baizik eta **zerbitzuak erantzun bat emateko duen gaitasunarekin, biztanleek baliabideaz egiten duten erabilerarekin, eta poliziaren jarduera berarekin lotuta daudela.**

Hori dela eta, irakurketan hainbat alderdi hartu behar dira kontuan, besteak beste: baliabidearen **eskuragarritasuna**, biztanleek —biktimak, hurbileko pertsonak eta abar— **zerbitzu publikoak erabiltzeko** duten joera (faktore hori, aldi berean, baliabidea dagoela jakitearekin, biztanleek hautematen duten hurbiltasunarekin, zerbitzuarekiko konfiantzarekin eta beste hainbatekin lotzen da), edo poliziaren **ofiziozko jarduketa**. Faktore horiei esker errazago azaldu daiteke biktimizazioen kopurua, bai eta horrelakoak gunen batean edo bestean gertatzeko aukera zergatik den handiagoa edo txikiagoa ere. Tasek eskaintako informazioaren osagarri, interesgarria izango litzateke jakitea, besteak beste, biktimizazioen zer ehuneko sortzen den polizia-jarduketaren beraren bitartez, biktimaren zuzeneko ekimenaren bitartez edo hurbileko pertsonen ekimenaren bitartez, eta abar.


A. 20.000 biztanletik gorako udalerriak

Bizkaiko 11 udalerrri handienek emakumezko biztanleriaren % 69,4 hartzen dute. Biztanleria-bolumen horrekin bat etorriz, 2024. urtean zehar udalerrri horietan erregistratu ziren bikotekideak edo bikotekide ohiak eragindako indarkeriaren ondoriozko Bizkaiko biktimizazioen % 71,2; guztira, **1.848 gertakari**.

Ohikoa denez, bat-etortze hori gutxitu egiten da udalerrriaren errealitatera ekartzean; izan ere, biktimizazioen banaketa ez dator bat kasu guztietan biztanleria-bolumenarekin, lehen azaldutako arrazoiengatik.

Erregistro horietako datuak tasa bidez (10.000 emakumeko) adierazita, argi ikusten dira udalerrrien arteko desberdintasunak. Izan ere, ez da multzo homogenea, eta, zenbaitetan, udalerrri batzuetako tasak beste batzuetakoak baino bi aldiz handiagoak dira.

2.14 grafikoa. Emakumeen biktimizazio-tasa, bikotekideak/bikotekide ohiak eragindako indarkeria dela eta. Udalerrriak > 20.000 biztanle. BLH. 2024



Iturria: Eusko Jaurlaritzaren datuetan oinarrituta egin da. Segurtasun Saila.


2.4 taula. Bikotekidearen / bikotekide ohiaren indarkeriaren ondoriozko emakumeen biktimizazioari buruzko adierazle nagusiak 20.000 biztanletik gorako udalerrietan. BLH. 2024

Udalerrria	Emakumeen biztanleria	BLHko guztizkoaren %	Biktimizazioen kop.	BLHko guztizkoaren %	Biktimizazio-tasa
Barakaldo	52.685	8,8	296	11,4	56,2
Basauri	20.826	3,5	111	4,3	53,3
Bilbo	182.866	30,5	720	27,7	39,4
Durango	15.297	2,6	51	2,0	33,3
Erandio	12.749	2,1	92	3,5	72,2
Galdakao	12.646	2,1	38	1,5	30,0
Getxo	40.357	6,7	128	4,9	31,7
Leioa	16.704	2,8	47	1,8	28,1
Portugalete	23.435	3,9	97	3,7	41,4
Santurtzi	24.019	4,0	152	5,9	63,3
Sestao	14.618	2,4	116	4,5	79,4
Guztira <20.000 bizt.	416.202	69,4	1.848	71,2	44,4
BLH, guztira	599.331	-	2.595	-	43,3

Oharra: Biktimizazioen tasa 10.000 emakumeren gainean kalkulatzen da.

Iturria: Geuk egina, EInen eta Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Sailaren datuetan oinarrituta egin da.

Jarraian datorren grafikoan ikus daitezke biktimizazio-kopuruaren eta 10.000 emakumeko sortzen den tasaren arteko konparaziozko erlazioa. Agerian geratzen den banaketa desorekatu horri dagokionez, aintzat hartu behar da atal honen hasieran adierazitako faktoreen konbinazioak duen eragina.




Iturria: Eusko Jaurlaritzaren datuetan oinarrituta egin da. Segurtasun Saila.

Udalerrien xehetasunei erreparatuz gero, eta urte arteko erregistroak erkatzeko orduan, ezin da taldean norabide bakarreko joeraz hitz egin, desberdintasun nabarmenak daudenez gero. 2024an, talde horretako udalerri gehienek, bakarka, aurreko urtean baino zifra txikiagoak dituzte. Soilik hiru kasutan egin dute gora: Basaurin (% 30,6), Erandion (% 23) eta Getxon (% 16,4).

Hurrengo grafikoak udalerri horietako bakoitzeko biktimizazio-tasek epealdi osoan izandako bilakaera erakusten du.

- Tasen aldaketari dagokionez, Bilbok eta Getxok nahiko portaera erregularra izan dute epealdi osoan zehar, eta intentsitate txikiko aldaketa erregistratu dira urteko indizeetan. Gainerako udalerrietako aldakuntza handiagoa izan da.
- Norabideari dagokionez, ia bi hamarkada hauetako datuek goranzko joera erakusten dute kasu guztietan, intentsitate desberdinarekin bada ere; Leioan, Portugaleten, Santurtzin eta Sestaon ikusten da kurbarik handiena.



B. Mankomunitateak


Bizkaian, udalerrien bederatzi taldekatze daude, gizarte-zerbitzuak emateko –esklusibotasunez zein ez–. Mankomunitate horietako udalerri gehienak 2.000 biztanletik beherako herriguneak dira, eta, guztira, Bizkaiko emakumezko biztanleen % 21,4 hartzen dute.

2024an, mankomunitate horiek, guztira, bikotekideak edo bikotekide ohiak eragindako indarkeriaren ondoriozko emakumeen **442 biktimizazio** erregistratu zituzten; hau da, Bizkaiko % 17.

Biktimizazioen bolumen horrek 10.000 emakumeko 34,5 biktimizazioko tasa bateratua islatzen du, lurralde mailakoa baino ia bederatzi puntu txikiagoa (43,3).

Banaka aztertuta, mankomunitate gehienek **Bizkaiko datu orokorra baino tasa txikiagoak** dituzte. Arratia, Enkarterri eta Lea-Artibai bakarrik daude horren gainetik:

- Arratiako Mankomunitatean, Igorreko eta Lemoako udalerriek biktimizazioen % 88 biltzen dituzte.
- Enkarterrin, udalerri guztietan erregistratu da biktimizazioen bat; bi heren baino gehiago Balmaseda, Zalla eta Gueñes artean (% 69).
- Lea-Artibain ere udalerri guztietan izan dira gertakariak, Etxebarrian izan ezik. Lekeitio, Markina-Xemein eta Ondarroako udalerriek % 90 baino gehiago pilatzen dute.



Oharra: Biktimizazioen tasa 10.000 emakumeren gainean kalkulatzeko da.

Iturria: Geuk egina, EINen eta Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Sailaren datuetan oinarrituta.

2.5 taula. Bikotekidearen / bikotekide ohiaren indarkeriaren ondoriozko emakumeen biktimizazioari buruzko adierazle nagusiak mankomunitateetan. BLH. 2024


Mankomunitatea	Emakumeen biztanleria	BLHko guztizkoaren %	Biktimizazioen kop.	BLHko guztizkoaren %	Biktimizazio-tasa
Arratia	7.229	1,2	40	1,5	55,3
Busturialdea	15.047	2,5	50	1,9	33,2
Enkarterri	17.837	3,0	86	3,3	48,2
Lea-Artibai	11.711	2,0	56	2,2	47,8
Lea Ibarra	1.004	0,2	2	0,1	19,9
Durangoko M.	30.519	5,1	89	3,4	29,2
Mungialdea	12.653	2,1	30	1,2	23,7
Txorierrri	11.142	1,9	36	1,4	32,3
Uribe Kosta	21.080	3,5	53	2,0	25,1
Guztira	128.222	21,4	442	17,0	34,5
BLH, guztira	599.331	-	2.595	-	43,3

Oharra: Biktimizazioen tasa 10.000 emakumeren gainean kalkulatzen da.

Iturria: Geuk egina, EInen eta Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Sailaren datuetan oinarrituta.

Aurreko urtearekin alderatuta, mankomunitate guztien biktimizazioen bolumena **% 4,5 igo da** (442 gertakari, eta 2023an, berriz, 423 izan ziren).

Ikuspegia 2005etik aurrerako aldira zabalduz, ondorengo grafikoak erakunde horietako biktimizazio-tasaren eboluzioa erakusten du. **Lurraldeko tasa baino txikiagoa da une oro.**



Iturria: Eusko Jaurlaritzaren datuetan oinarrituta egin da. Segurtasun Saila.




Oro har, mankomunitateetako biktimizazio-erregistroa txikiagoa izateak lotura izan dezake mankomunitateak osatzen dituzten udalerri gehienen ezaugarriekin, askok tamaina txikikoak baitira; izan ere, inhibitzailea izan daiteke egoera horiek publiko egiteko orduan, komunitateko anonimatu maila txikiagoa baita –faktore hori eragozlea da, bai biktimen kasuan, bai hurbileko pertsonen kasuan–. Gainera, lotuta egon daiteke udalerri horiek, oro har, biztanleria zaharragoa izatearekin; izan ere, gogoratu behar da Bizkaian erregistratutako biktimen adin-kurbak pertsona gazteenen presentzia nabarmena erakusten duela.

Hurrengo grafikoan mankomunitate bakoitzaren profila ikus daiteke:

- Tasen gorabeherei dagokionez, erakunde guztiek erakusten dituzte irregulartasunak mugimenduan.
- Norabideari dagokionez, Mungialde eta Uribe Kosta izan ezik (gorakadak eta beherakadak tartekatuta), goranzko joera nabari da. Enkarterriko Mankomunitateak sei urtez jarraian egin du gora.



2.19 grafikoa. Bikotekidearen / bikotekide ohiaren indarkeriaren eraginezko emakumeen biktimizazio-tasa udalerrien mankomunitateetan. BLH. 2005-2024



2.3. FAMILIA BARRUKO INDARKERIA


Segurtasun Sailak emandako datuekin bat, epigrafe honetan gizonetako emakumeen aurka familia-ingurunean eragindako indarkeria soilik hartzen da kontuan, bikotekideak edo bikotekide ohiak eragindakoa alde batera utzita.

2.3.1. Lurralde osoko datuak

A. Biktimizazioak eta biktimak

Urtean zehar, Ertzaintzak emakumeen **660 biktimizazio** erregistratu zituen Bizkaian familiartekoei eragindako indarkeriaren ondorioz. Zifra hori, guztira, 557 biktimari dagokie, eta **hamar mila emakumeko 11 biktimizazioen** tasa suposatzen du.

Biktimizazioen bolumena % 7,7 igo da aurreko urtetik, eta aldiko **baliorik altuenera** iritsi da⁶.



*Oharra: 2009tik (urte hori barne), datuak *erasotzaileak gizonak* diren biktimizazio kasuei buruzkoak baino ez dira. Aurreko urteetako datuek biktimizazio guztiak jaso dituzte, erasotzailearen sexua alde batera utzita, eta, beraz, erasotzailea emakumea deneko kasuak ere hartzen dira kontuan. Grafikoa apurketa hori kolore-aldaketarekin adierazi da.

Iturria: Eusko Jaurlaritzaren datuetan oinarrituta egin da. Segurtasun Saila.


⁶ 2020an familia barruko indarkeriarekin lotutako 654 gertakari erregistratu ziren, pandemiaren eta horri aurre egiteko neurrien testuinguruan (beste arreta-zerbitzu batzuetan ere familia barruko indarkeriaren kasuen gorakada antzeman zen).

Harremana erasotzailearekin

Biktimaren eta erasotzailearen arteko harremanaren arabera, familia barruko indarkerian erregistratu diren gertakariak hiru taldetan banatzen dira:

- Alaba adingabea
- Ama
- Gainerako familiartekoak

Normalean gertatzen den bezala, 2024an ere, gertakari gehienetan biktima erasotzailearen ama (% 46,8) edo familiartekoa (% 35,8) izan da. Gainerako % 17,4an, biktima erasotzailearen alaba adingabe bat izan da.



Iturria: Eusko Jaurlaritzaren datuetan oinarrituta egin da. Segurtasun Saila.

Aurreko urtearekin alderatuta, indarkeria-mota horretako gertakarien gorakada intentsitate desberdinez banatzen da hiru taldeetan; neurri handiagoan “ama” kategorian.

2.6 taula. Familiaren barruko-indarkeriaren ondoriozko biktimizazio kopurua, erasotzailearekiko harremanaren arabera. BLH. 2023-2024

	2023	2024	Aldakuntza (%)
Alaba adingabea	113	115	1,8
Ama	277	309	11,6
Gainerako familiartekoak	223	236	5,8
Guztira	613	660	7,7

Iturria: Eusko Jaurlaritza. Segurtasun Saila.

Adina


Familia barruko indarkerian ere adin-tarte guztietako biktimak izaten dira. Ohikoa denez, maiztasun handienak **adingabeen eta 50 urtetik gorako**en artean daude:

- **Biktimen % 30 adingabeak dira**; guztira, 167 neskato eta nerabe: 14 urtetik beherako 124 adingabe (biktima guztien % 22); eta 14 eta 17 urte bitarteko 43 nerabe (% 8). **14 urtetik beherako nesken taldea** da adin-tarte **ugariena**.

Hamar biktima adingabetik ia zazpitan, aita izan da erasotzailea (% 69).

- **% 37k 51 urte edo gehiago ditu** (206 emakume). Horien artean dago maiztasun handieneko beste adin-tartea: 115 emakume **51 eta 64 urte bitartekoak** dira (biktima guztien % 21).

Aurreko urtearen aldean, gora egin dute adin-talde guztiek, 21 eta 30 urte bitarteko heldu gazteak izan ezik.




Iturria: Eusko Jaurlaritzaren datuetan oinarrituta egin da. Segurtasun Saila.

Jaioterria

Ohikoa denez, familia barruko indarkeriaren hamar biktimatik zortzi eta bederatzi artean EAEn eta beste autonomia-erkidego batzuetan jaiotakoak dira. 2024an, datu hori **457 emakumeri dagokie (% 82)**. Atzerriko herrialdeetan jaiotako emakumeen kopurua 100 da, eta guztizkoaren % 18 dira.

Aurreko urtearekin alderatuta, lehen multzokoaren kopuruak % 18,4 egin dute gora, eta bigarrenen kopuruak, berriz, behera (-% 15).




Iturria: Eusko Jaurlaritzaren datuetan oinarrituta egin da. Segurtasun Saila.

B. Erasotzaileak⁷

Ertzaintzaren erregistroen arabera, 2024an, familia barruko indarkeriako erasotzaileak 513 izan ziren; aurreko urtean baino % 9,2 gehiago.

Maiztasun handienak erdiko adinetan agertzen dira, bereziki, **41-50 urte bitartekoetan (% 23)**; tarte hori da ugariena, eta aurreko urteko bolumen bera du.



Iturria: Eusko Jaurlaritzaren datuetan oinarrituta egin da. Segurtasun Saila.

⁷ Emakumeen aurkako indarkeria-gertakarien egileak gizonak diren kasuak.

2.3.2. Udalerrietako datuak

2024an, Ertzaintzak Bizkaiko 65 udalerritan erregistratu zituen familia barruko indarkeriarekin lotutako gertakariak (2023ko kopuru bera).


Biktimizazioen % 62 (406 guztira) 20.000 biztanletik gorako 11 udalerrietan gertatzen dira. Oro har, indarkeria-mota horretarako, biktimizazioen portzentajezko banaketa nahiko proportzionatua da biztanleriarekiko, nahiz eta hainbatetan indize atipikoak erregistratzen diren.

2.7 taula. Familia barruko indarkeriaren ondoriozko emakumeen biktimizazioari buruzko adierazle nagusiak 20.000 biztanletik gorako udalerrietan. BLH. 2024

Udalerrria	Emakumeen biztanleria	BLHko guztizkoaren %	Biktimizazioen kop.	BLHko guztizkoaren %	Biktimizazio-tasa
Barakaldo	52.685	8,8	57	8,6	10,8
Basauri	20.826	3,5	27	4,1	13,0
Bilbo	182.866	30,5	163	24,7	8,9
Durango	15.297	2,6	15	2,3	9,8
Erandio	12.749	2,1	20	3,0	15,7
Galdakao	12.646	2,1	6	0,9	4,7
Getxo	40.357	6,7	30	4,5	7,4
Leioa	16.704	2,8	11	1,7	6,6
Portugalete	23.435	3,9	19	2,9	8,1
Santurtzi	24.019	4,0	29	4,4	12,1
Sestao	14.618	2,4	29	4,4	19,8
Guztira	416.202	69,4	406	61,5	9,8
BLH, guztira	599.331	-	660	-	11,0

Oharra: Biktimizazioen tasa 10.000 emakumeren gainean kalkulatzen da.

Iturria: Geuk egina, EINen eta Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Sailaren datuetan oinarrituta.



Iturria: Eusko Jaurlaritzaren datuetan oinarrituta egin da. Segurtasun Saila.

2.4. SEXU-INDARKERIA

Sexu-askatasunaren aurkako delituek barne hartzen dituzte Zigor Kodean halakotzat tipifikatutako delituak: sexu-erasoa, sexu-gehiegikeria, sexu-jazarpena, exhibizionismoa, sexu-probokazioa, adingabeen galbideratzea, behartutako prostituzioa eta adingabeen pornografia.

Atal honetan aurkeztzen diren datuek emakumeen aurka beren familia-eremukoak ez diren gizonen eragindako sexu-indarkeria bakarrik aipatzen dute; bikotekidearen / bikotekide ohiaren edo beste familiarteko baten kargurako sexu-delituengatik biktimizazioak, berriz, horiei egotzitako guztizkoan hartzen dira aintzat (kapitulu honen aurreko atalak).


2.4.1. Lurralde osoko datuak

A. Biktimizazioak eta biktimak

2024. urtean zehar, Ertzaintzak sexu-askatasunaren aurkako delituen ondoriozko emakumeen **357 biktimizazio** erregistratu zituen Bizkaian (350 emakume biktimari dagozkie), aurreko urtean baino % 9,9 gehiago. Biktimizazio-zifra horri tasa hau dagokio: **5,9 biktimizazio** hamar mila emakumeko.

2024ko datua indarkeria-mota horretan orain arte erregistratutako **maximoa** da.

Hurrengo grafikoan ikus daiteke sexu-indarkeriagatik biktimizazioek Bizkaian 2005etik izan duten bilakaera. 2017ra arte, egonkortasuna ikusten da urtez urteko erregistroan; oro har, 120 eta 170 gertaera artean izan ziren urtean. Une horretatik aurrera, urtetik urterako aldakuntzak gora egin du urtero, 2020. urteko salbuespena salbu.



Oharra: 2009tik aurrera (urte hori barne), datuak *erasotzailea biktimaren familia-eremukoak ez den* biktimizazio-kasuei buruzkoak baino ez dira. Aurreko urteetako datuek sexu-askatasunaren aurkako delitu guztiak jasotzen dituzte, biktimaren eta erasotzailearen arteko harremana alde batera utzita, eta, beraz, bikotekidearen / bikotekide ohiaren eta beste ahaide batzuen sexu-erasoak hartzen dira kontuan. Grafikoan apurketa hori lerro etenarekin eta kolore-aldaketarekin adierazi da.


Iturria: Eusko Jaurlaritzaren datuetan oinarrituta egin da. Segurtasun Saila.

Adina

Ertzaintzak erregistratutako sexu-askatasunaren aurkako delituen biktima diren emakume gehienak oso adin gazteko segmentu batean kokatzen dira, eta horien kopuruak behera egiten du adina gora egin ahala.

Horrelako delituen bat pairatzen duten emakumeen erdiak baino gehiagok (**% 51**) ez dituzte **20 urte baino gehiago**, eta guztira 179 dira (2023an, 172).

